

ALKATEAREN PROBIDENTZIA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkate naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Kale-garbiketarako peoi gidaria (E) lanpostua LANBIDE bitartez aldi baterako betetzeko (2026ALK00004).

Oñatiko Udaleko Kale-garbiketako departamenturen egoera ikusita, kale-garbiketarako peoi gidari bat bajan dagoen bitartean lanpostua betetzeko pertsona bat kontratatzeke proposamena egin da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena; bere 58. Artikuluak dio:

1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen

arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik

eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeke, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu-zerbitzu publikoez baliatzeko aukera egongo da.

Oñatiko Udalak duen lan-poltsan ez dago inor eta inguruko Udalek ez dute lan-poltсарik, beraz, Lanbidera jo behar izan da.

Kale-garbiketarako peoi gidaria izatea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu-zerbitzu publikoetatik (Lanbidetik) hautagai bat izendatzea, kale-garbiketako peoi gidari bat kontratatzeke. Hain zuzen ere, kale-garbiketan metatutako langileen bajek 2026ko otsailaren 10etik aurrera (barne) langile bat kontratatzea eragin dute. 2026ALK00002 zenbakidun espediente bideratuta ase nahi izan zen beharra, baina espediente hartan jasotako kontratazio-baldintzak berrikusi behar izan dira 2026ALK00004 espediente honi begira, legeak xedatutakora ekartzeko. Enplegu Zerbitzu Publikoei lan-kategoria eta baldintzak betetzen dituzten hautagaiak aukeratzeko eskatuko zaie. Izen-emate epea amaituta, behin-betiko onartu eta baztertuen eta merezimenduen zerrendak argitaratuko dira.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATU DUT:

1. Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, kale-garbiketarako peoi gidari postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa,

Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 10.1.b artikulua arabera, ordezkatutako langilearen absentziak irauten duen bitartean, lanpostua gordetzeko eskubidearekin (2720/1998 Errege Dekretua, 4. Artikuluan), enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina ordezkatzen duen langilearen lanpostukoa izango da, parte proportzionalean.

2. Honako profil hau eskatzen da:

Kale garbiketako peoi gidaria (E), postua betetzeko:

Lan-kontratuaren mota: aldi baterakoa, ezintasun-egoerak irauten duen bitartean.

Jardunaldia: % 100.

Hileko soldata gordina: Kale garbiketako peoi gidariari dagokiona

- Beharrezko prestaketa:

o Eskola-ziurtagiria

o C gidabaimena izatea eta ibilgailuak gidatzeko inolako eragozpenik ez izatea

o Gidarien kualifikazio-txartela

o Euskara 1HE

- Prestakuntza osagarria:

o Prestakuntza osagarria

o Lanbide-esperientzia

3. Hautagaiak hautatzeko, balorazio-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Beharrezko prestaketa:

o Eskola-ziurtagiria

o C gidabaimena

o Gidarien kualifikazio txartela

o Euskara 1HE

3.2 Prestakuntza osagarria (gehienez 2 puntu):

- Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak: deituriko lanpostuaren eginkizunekin edo honetan jarduteko trebetasunekin loturiko gaietan zerikusi zuzena dutenak; 0,05p orduko.
- B+E motako gidabaimena izatea puntu 1ekin baloratuko da.
- C1+E motako gidabaimena izatea 2 punturekin baloratuko da.

3.3 Lanbide-esperientzia (gehienez 10 puntu):

- Administrazio publikoan kale garbiketako peoi gidari (E) lanpostuan izandako esperientzia; 0,20pt/hilean
- Administrazio publikoan bestelako peoi gidari bezala izandako esperientzia; 0,15 pt/hilean
- Administrazio publikoan kale garbiketako peoi (E) bezala izandako esperientzia; 0,12 pt/hilean
- Administrazio publikoan bestelako peoi bezala izandako esperientzia; 0,09 pt/hilean
- Enpresa pribatuan lanpostuarekin zerikusia duten funtziotan izandako esperientzia; 0,05 pt/hilean

4. Epaimahai-kideak:

GGBB eta Antolakuntzako arduraduna

Kale Garbiketako arduraduna

ESKUac1f504b-fc77-4bff-af2b-7d9769ab15c7



Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan sinatu dut.
Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan
Alkatea
Sin.: Izaro Elorza Arregui

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



EKS | CSV: ESKUac1f504b-fc77-4bff-af2b-7d9769ab15c7

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>